



Arartekoaren ebazpena, 2010eko abenduaren 21ekoa. Horren bidez, URA-Uraren Euskal Agentziari gomendatzen zaio ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskaerei epearen barruan erantzun diezaien.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Ura-Uraren Euskal Agentziari egindako ingurumenari buruzko informazio eskaeraren erantzunik eza aditzera eman zigun.

Eskaeraren xedea da Murgan (Aiara- Araba) kokatuta dauden (...) eta (...) enpresen ingurumen arloko baimenei buruzko administrazio espedienteari eta ingurumenaren agintaritzak egin dituen gainontzeko txostenei dagokienez, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzea.

Eskaera hori 2010eko maiatzaren 6an aurkeztutako idazkiaren bitartez bideratu zen. Ondoren, 2010eko abuztuaren 3an erreklamatzailerak informazioa bidaltzeko berriro eskatu zuen eta, bide batez, ingurumenari buruzko legerian ezartzen den epea soberan pasa zela aipatu zuen. Bigarren idazki horretan erantzuteko gehienez hilabeteko epea dagoela planteatu zuen eta ebazteko betebeharra gogorarazi zuen. Modu berean, egindako eskaera isiltasunaren bidez baietsi zela uste du, beraz, sailak ustezko baieste-egintza bete behar du.

2. 2010eko azaroaren 29an erreklamatzailerak Ararteko erakundera jo zuen jakinarazteko, denbora asko igaro den arren, oraindik ere ez zuela erantzunik jaso, beraz, erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen.

Erreklamazio hori izapidetzeko erabakia behin hartuta, 2010eko abenduan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Ingurumenari buruzko Informazio Sailarekin harremanetan jarri gara egindako eskaeraren erantzunik eza baieztatzeko. Zerbitzu horretatik egiaztatu digute, hain zuzen ere, erreklamatzaileraren eskaerari erantzutea ez dela posiblea izan administrazio zerbitzuaren funtzionamenduarekin lotutako arazoak direla eta. Edonola ere, adierazi digute egindako eskaerari berehala erantzungo diotela. Gaur egun, oraindik ere ez dugu erantzun horren baieztapenik jaso.

Informazio hori zein kexagileek aipatutako gainerako inguruabarrak ikusita eta horien edukia aztertu ondoren, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut



Gogoetak

1. Kexa hau erreklamatzailerak sail horri egindako ingurumenari buruzko informazio eskaerari erantzun ez zaiolako aurkeztu da.

Zehatz-mehatz, eskaerak Murgan (Aiara- Araba) kokatuta dauden (...) eta (...) enpresen ingurumen arloko baimenei buruzko informazioa eskuratzeko modua aipatzen du.

Ararteko erakundeak aurrekarietan azaldutako kudeaketak egin ondoren, ikusi du ez dagoela kexagilearen asmoari emandako erantzunik.

2. Abiapuntu gisa, gogorarazi behar dugu administrazio publikoak behartuta daudela interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariaz erantzutera.

Aipatu behar dugu administrazio horrek behar bezala izapidetu behar dituela biztanleek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Era berean, azpimarratu behar da erantzuteko betebeharrak hor dirauela, ebazteko epea iraungi arren, eta diziplina erantzukizuna eragin diezaioke ebazteaz arduratzen den organoaren titularrari.

3. Arartekoak hainbatetan salatu du administrazio isiltasuna oso arriskutsua dela. Izan ere, biztanleak babesik gabeko egoeran kokatzen ditu, ez baitakite administrazioak zer egingo duen euren asmoarekin eta eskatutakoaren inguruko erantzuna berrikustea eragozten baitu.

Biztanle horien erreklamazioak bideratu ez direnez eta horiei erantzun ez zaienez, esan dezakegu administrazioak oker jokatu duela eta arartekoaren erakundeak horren berri eman behar du.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1. eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua biztanleei ematen dien administrazio egokirako





eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).

Alderantziz, administrazio txartzat jo behar da artikuluko horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea. Betebehar hori honakoen bidez zehazten da: erreklamazioa jaso izana adierazteko betebeharra, zerbitzu eskudunari bidaltzeko betebeharra eta aurkeztutako erreklamazioei arazoizko epean erantzuteko betebeharra.

Horiek horrela, arartekoak behin eta berriro nabarmentzen du

4. Esku artean dugun kasuari dagokionez, ingurumenari buruzko informazio eskaera horretan 27/2006 Legearen 10. artikuluan aurreikusitako prozedura bat aipatzen da. Lege horrek arautzen ditu ingurumenaren gaian informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak.

Informazioa eskuratzeko edo bidaltzeko modu azkarrean eta lehentasunarekin egin behar da. Legeriak ebazteko epe batzuk zehaztu ditu eta horiek erantzuna emateko arduraduna den erregistroan eskaera jasotzen denetik ez dute hilabeteko epea gainditzen. Salbuespenak dira beste hilabete bateko berariazko luzapena duten kasuak.

Informazioa eskuratzeko kasuan, administrazioak berehala erantzutea funtsezko premisa bat da gainontzeko parte-hartze edo ingurumeneko justizia eskubideak gauzatu ahal izateko.

Kexa-espeditente honetan agerian jarri den bezala, zazpi hilabete baino gehiago pasa eta gero ez da inolako erantzunik jaso.

Gauzak horrela, administrazio horrek ez du erreklamazioaren ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidearen ondoriozko eginbeharra bete.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:



27/2010 GOMENDIOA, abenduaren 21ekoa, URA-Uraren Euskal Agentziari

1. Orain arte tartean ez bada erantzunik egon, alait lasterren erantzun diezaiola erreklamatzailleak egin duen ingurumenari buruzko informazio eskaerari.
2. Ordenamendu juridikoan eta ingurumenari buruzko legerian ezarritako epean eta terminoetan, ingurumenaren gaineko informazioa eskuratzeko egindako eskaerak izapidetu ditzala.

Euskal herri administrazioei, legeria horren ondoriozko eginbeharrak bete ditzaten, nahikoak diren bitartekoak esleitu behar zaizkie. Berezko bitartekoak eduki ezean, beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatu beharko ditu funtzio publiko hori betetzeko.

